

GITARRAREN LOKARRIA



Gitarraren lokarri
 mea zan kejatzen,
 zipozchoak¹ estucho
 zubelako jartzen;
 eta esaten zion
 tristuraz berari,
 —¿zertan beti tiraka
 ari zera neri,
 jakiñikan geyegi
 bainazula mintzen,
 ez alzaitu nere mia
 char onek kupitzen?
 ez dit egiten neke
 geyegiak onik,
 bada *zart* sarri bear
 det onla egin nik;
 arren bada piška bat
 lasaitu nazazu,
 eta soñu ohea
 entzungo bainazu:
 bañan nola piška bat

zuben lasaituko,
 eta gozoago zan
 soñuba aituko,
 aren erreku onak
 ez entzunik gorrak
 biotzikan gabeko
 zipozcho gogorrek,
 berriz estutzeari
 ez baitzion utzi,
 ¿eta zer gertatu zan?
 lokarriya autsi.

.

Munduko gitarran da
 au bera gertatzen,
 lokarri miak estu
 diranean artzen,
 eteteko zorian
 baitirare jartzen,
 eta etenak ez du
 lan onik ekartzen.

RAMÓN ARTOLA.



(1) Clavija.